



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

EBAZPENA, 2016ko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariarena; Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko 2016ko otsailaren 5eko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara ematen dira, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituei dagokienez

Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko, hautaketa-prozedurarako deia egin zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren 8.7. oinarriak zehazten duenarekin eta 2016ko ekainaren 6ko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren Ebazpenaren 1 atalean adierazten duenarekin bat etorriz, argitara eman ziren zuzendari beraren 2016ko ekainaren 27ko Ebazpenaren bitartez, lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituei dagokienez.

Aipatutako behin-behineko puntuazio horien aurka aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi ondoren, bai eta ikusi diren akatsak ofizioz zuzendu ondoren, egin beharreko aldaketak egin dira.

Horrenbestez,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko 2016ko otsailaren 5eko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura Sailburuaren aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituei dagokienez.

Bigarrena.- Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin betiko zerrenda ondorengo tokian emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Hautaketa prozesuaren jarraipena" -> kidegoa eta espezialitatea adierazi -> "Emaitzak" -> "Lehiaketa aldia - Partziala".



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA**
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Hirugarrena.- Behin betiko puntuazioaren aurka ez dago errekurtsua jartzerik; interesa duten izangaiek gorako errekurtsua jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.3.2 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 22a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

KONRADO MUGERTZA URKIDI